

XIRU 18 . urtea

Musika jeialdia Xiberoan

Martxoaren 30, 31 eta apirila 1ean

Norena da Lürra?

„Heben ez da lür hanitx, bat baizik!“ dio erran berriak

Bena norena da?

Erosten düanarena, lantzen düanarena, urte orotan hortan bizi denarena?

Lürra badügüa, ala Lürrak bagütüa, non da häütüa?

„Xiberoa bat azkar ta bizi beti defendatü beharrez

Bena herria ez da egiten dena zerrailü bazterrez

Orhiren balde amets aurride ihoiz ez nahi aiherrez

Xibero Nafar beraz eüskaldün lür hautsaren hüme berez“

Entzün dezagün zer dioen, müsikaz eta elez, Erromaniako tzigano horiek, ez beittüe seküla lür buxinka bat ere üken, eta bizi horregatik!

o Martxoaren 30 Ostiralea: Garindainen 21etan

„**GARINDAINE LUR GAINE**“ ikusgarria

herriko karrikan laketzen da XIRU, herritarrekin beste so bat emanez gure egünoroztako leküari, poesiaz, sonüz eta süzko argiz.

XAVIER PINON (argazkilari-Parise): argazkiak etxeetako paretetan

SUAK taldea (piroteknia – Altzai) : **Mündüko sü ttipienaren sortzea**

JON MAIA berstsolaria (Zumaia Gipuzkoa)

KARIDADEKO BENTA (karrikako müsika-Zumaia) : Zumaiakoitsas bazterrean sortü müsika ebiltariak

AINARAK eta **OILARRAK** taldeak, **MIXEL AROTZE** : herriko kantariak, herriko amodioa herriko mintzajean kantatzen düena, eta hau dena herriko karrikan !

NAFARRA-XIBERO KLUNAK (kluna Xiberotar eta nafartar): gure lürhari so gogabera emaiten düe, gorria südürrean eta bihotza begian

KORRIKA : Korrika Garindainen iragaiten da, ikusgarri denboran, ordüan lasterkan ari gitean eüskararen gibeletik, gutarik hürüntzera ützi gabe !

○ **Martxoaren 31 Neskenegüna : Gotainen**

10.30 etan : **MINTZA LEKÜ** Herriko etxean : « Norena da lürra?«
eztabada-jakilegoa idekia artistekin eta herritarrekin. Deus ez date salgei, haboroziz erosgei,
doi doia lürrean bizigei.

21etan: Gotaineko Kursaal antzokian:
„LÜRREAN SORTÜ“ ikusgarria

Ohorezko kùmitü berezia, seküla bere lürrik üken ez düan populüa:
VAGABONTU TALDEA (Errumaniako tzigano-rom fanfarea): mila urte hontan ebilki den
herri baten musika, herritarrek emanik.

ALFRED SPIRLI ETA GERALDINE KELLER (Perkusio eta botza – Lyon eta Alsazia):
Beste ordüz XIRUn ebilirik, ützültzen zaizkü aldi hontan bien arteko emanaldi batentako
„Ortzia lorez eta lürra izarrez“ litake haien aurkezpena

KARIDADEKO BENTA (Musika eta kantore- Gipuzkoa): haien hitz eta ahaideak herriz
kanpoko lürretan hazten dira, Turkian ala Ternuan, euskal arrantzaleen „Terra Nova-Lür
berri“ hartan

XIBEROKO BENTA: sorkuntza xedea Xiberoako eta Gipuzkoako sonügileen artean:
OIHERKOREN TXARANGA (2006ko Oiherkoren Trajerian pastoral berrian sortü
txaranga, mixel etxekoparen üngürüan), eta **KARIDADEKO BENTA** taldea.
Karidadeko Benta, hegoak ekarririk Xiberoan pausatzen da hebenko müsikaz eta hitzez
kozatzeko. **AMAREN ALABAK** neska taldearen parte hartzearekin.

Xehetasunak – Lekuen hartzea :
Abotia : 00 33 5 59 28 32 16
mixeletxekopar@wanadoo.fr

○ **Apirilaren 1a Igantea: Irabarnen: ÜTÜRZABAL IV**

Laugerren urtea, laugerren arte obra berria XIRUko sortürik urte orotan egoiten den erakusketaren aberasgarri

10.30 etan **PILOTA PARTIDA** eskü hüska, lau Xiberotarren artean, Xiberoko bertsulariak eskü hüska eta hitz hütsez, herriko dantzariak, Iparraldeko txistulariak

11.30 etan: **UTURZABALA IV**: kontzertu ebilaldia

GUANES ETCHEGARAY eskultorearen obra berriaren estrena (Amorotze-Behe Nafarroa). Negü hontan Gotainen egonaldi bat egin ondoan, obra hau Ütürzabala ebilbide-erakusketan egonen da lüzarako; milaka jente ebilten da ühaitz bazter hortan urtean. **UZTARO** arte talde Xiberotarraren obrak ere badirate, Atharratzeko kolegioaren ikasleenak eta Maitena Lougarot herritarrarenak.

Artista hauekin: **VAGABONTU FANFAREA** (Errumaniako tziganoak), **ALFRED SPIRLI**, **GERALDINE KELLER ETA MIXEL ETXEKOPAR** (Perkusio, botz eta txirulak), **JON MAIA** bertsularia, **NAFARRA-XIBERO KLUNAK**.

13 etan: **KANPOKO BAZKARI HERRIKOIA**, sonüz alageratürik
Lekün gainen erosi a la bakotxak berea ekarri

15 etan: ikusgarri – topaketak:

CHRISTIAN VIEUSSENS: Arcachoneko ixtorioak, ostra hazle-itsas laborarien eta espekulazio basaren artean tinkatürik.

VAGABONTU FANFAREA: Müsika egin bai, bena beren popülüaren izatea kontatüko deiküe, xümeke, züzenki

XIRU baitan:

Bertsu arigiak Jon Maia bertsulariarekin, Xiberoko bertsolari gazte eta gehientako.

Kontzertü egünaldia xiberoko ikasle elebidüentako, IKAS zentroaren partaidetzarekin.

Sohütako ikasleen parte hartze artistikoa, beren kältür xedearen barne.

Gotaineko eskolako haurren parte hartzea egünez egün Guanes Etchegaray-en sorkuntza egonaldian Gotainen.